

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

TOKIA: Busturiko Udaletxea

EGUNA: 5/11/2014

HASIERA: 20:15

AMAIERA: 20:30

BERTARATUAK:

ALKATEA

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda (Bildu)

ZINEGOTZIAK:

Jone Miren Arrasate Urquiaga (Bildu)

Ziortza Bilbao Agirre (Bildu)

Jon Ander Zulueta Andicoechea (Bildu)

IDAZKARI OROKORRA:

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate andrea buru zela, Batzorde Informatzailea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udaltzatzen idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.

Alkaten andrearen aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatu zaien gai ordenaren arabera, eta honako akordio proposamenak egin ziren:

1.- Aurreko saioko akta.-

Batzordeak aho batez onartu zuen 2014ko urriaren 22ko saioko akta.

2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.-

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion I. L. L. S. administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri duela 2014ko ekainaren 4an hartutako erabakiaren aurka; hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak 2013ko uztailaren 3an Pagozarreta-Zabaleko bidearen inguruan hartutako erabakiaren aurkako berrezartzeko errekurtsoa ez onartzearen aurka.

Epaiketa prozedura arrunt gisa bideratzen da Bilboko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegian.

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen prozeduran agertzea eta Udal honen defendatzailea eta ordezkaria J. A. L. M. abokatua eta I. G. A. prokuradorea izatea.

3.- Errekurritutako egintzaren etetea.-

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion Bilboko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiko 224/2014 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoan, 2014ko ekainaren 4an Tokiko Gobernu Batzordeak 2013ko uztailaren 3an Pagozarreta-Zabaleko bidearen inguruan hartutako erabakiaren aurkako berrezartzeko errekurtsoa ez onartzea erabaki izanaren aurkakoan, errekurtso-egileak, I. L. L. S.k, errekurritutako egintza eteteko kautelazko neurria eskatu duela, aipatu auzitegiari Udal honek horren berri emateko eskatuz.

Hori ikusita, Batzordeak aho batez erabaki zuen ezer ez egitea proposaturiko neurriaren aurka.

4.- “Otsozulo Kultur Elkarte”ren diru-laguntza eskaera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen “Otsozulo Kultur Elkarte”k azaroaren 8an “Bertso afaria” egiteko aurkeztutako diru-laguntza eskaera ez onartzea, aurkezturiko aurrekontuaren arabera, aipatu jarduerak superabita izango bailuke, eta Udalak, jarduera defizitariora izango balitz, diru-laguntza ematea aztertuko lukeela ohartarazi zuen.

5.- “Añebustin-Añetu” elkartearen idatzia.-

“Añebustin-Añetu” elkarteak hainbat gairen gainean aurkeztutako idatzia ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen honela erantzutea:

1.- Goierriera doazen errepideen areketan sastraka kentzeari dagokionez, Udal honek uste du hori egiteko eperik onena abuztu amaiera eta iraila hasiera dela, baina egon badaude epea alda dezaketen baldintzak (udal langileek eta lan horiek egiten dituen enpresak egin ahal izatea).

2.- Errepideak konpontzeari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiko Landa Bideen Planetik zetozen urteko laguntzak desagertu direnez, udalaren funtsetatik ordaindu behar dira (hondamendi naturalek eragindako kalteak salbu); hortaz, konponduko dira dauden baliabideen eta Udalak ezartzen duen lehentasun-ordenaren arabera.

3.- Zura ateratzeko araudiari dagokionez, udal-ordenantzaren kopia bat emango zaie.

6.- P. A. M. D.en idatzia.-

Ikusita P. A. M. D.ek ondare-erantzukizunagatik Udal honi egindako 18.700 €-ko erreklamazioa, bere ustez Abiñaburu inguruko espaloien egoera txarraren ondorioz bere semeak, M.ek, pairatutako kalteak direla-eta, eta ikusita Udal honen aseguru-etxearen, AXAren, txostena, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen hurrengo ebazpen-proposamena helaraztea erreklamazio-egileari, egoki deritzen alegazioak aurkez ditzan:

“Eskaera ez onartzea, izan ere:

1.- Oinezkoek ikus zezaketen espaloiak zuen anomalia.

2.- Bide publikoan noraezean ibiltzeak ez du bihurtzen Administrazioa bertan gertatzen diren gertakari guztien arduradun; kaleak ez daudenez beti egoera onean arretaz ibili behar baita bertatik, egon litezkeen oztopoak ekiditeko. Kasu honetan, moztuta zegoen gontza ikusi egin zitekeen, eta oztopoa, arazorik gabe, zeharkatu; hortaz, aitik hala ohartarazi behar zion monopatinetan ahoz gora etzanda eskuen laguntzaz kaletik arrastaka zebilen semeari.

3.- Administrazio-espeditentean aurkitzen den informazioaren edukia oinarri, ez dago kausazko loturarik Administrazioaren

funtzionamenduaren eta M. M. P. adinez txikiak jasandako kalteen artean.

7.- D. G. I. H.en Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena.-

D. G. I. H.ek aurkezturiko idazkiaren berri emanda, non BI-6056-AZ matrikula duen bere ibilgailuak, 25 urtetik gorako antzintasuna duen heinean, 2015. urtean eta hurrengoetan Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena izan dezan eskatzen duen, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen aurkeztutako eskaera onartzea, Zerga arautzen duen Udal Zerga Ordenantzaren laugarren artikuluan ezarritakoaren arabera.

8.- R. M. G.en diru-laguntza eskaera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen mahai gainean uztea R. M. G.en "Segundo Olaeta Musika Eskola"n musika ikasteko aurkeztutako diru-laguntza eskaera, jakin arte diru-laguntza eskatzeko epeari buruzko publizitate nahikoa egin zen ala ez.

9.- "Alvarez Forestal, S.A." enpresari zura ateratzeko abala itzultzea.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen "Alvarez Forestal, S.A." enpresak aurkezturiko eskaera onartzea, Axpeko bidea erabiliz "Porrotene" mendiko zura ateratzeko jarrita daukan 4.000 €-ko fidantza itzul dakion.

10.- P. M. P.i zura ateratzeko abala itzultzea.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen P. M. P.ek aurkezturiko eskaera onartzea, Mapeko bidea erabiliz "Alzaga" mendiko zura ateratzeko jarrita daukan 6.000 €-ko fidantza itzul dakion.

11.- Hirigintza-baimenak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak, igorritako txosten juridiko eta teknikoak ikusita, aho batez onartu zuen honako hirigintza-baimenak ematea, bertan ezarritako baldintzetan, horiek eskatzaileari jakinarazi behar izanda:

1.- F. R. A. (52/14 Txost.), Altamira auzoko 39.eko San Miguel elizako kanpandorrea eta erreteila konpontzeko, 1.990,00 €-ko aurrekontuarekin.

2.- S. B. eta B. U. (53/14 Txost.), San Bartolome auzoko 54.eko baserriaren inguruan ura jaso eta drainatzeko, 4.381,48 €-ko aurrekontuarekin.

3.- I. G. O. (54/14 Txost.), San Kristobal auzoko 20.ean sukaldean eta komunean lanak egiteko, 2.580,50 €-ko aurrekontuarekin.

4.- C. R. A. (55/14 Txost.), Axpe auzoko 146.ean leihoak aldatzeko, 4.364,00 €-ko aurrekontuarekin.

Eta besterik gabe, Alkate andreak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate andreak eta egiaztatzen dudana Idazkariak sinatuta.

Alkatea,

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda

Idazkaria,

Víctor-Martín Amparan Álvarez